– Arrisku bat baino gehiago estaltzen denean, garbi identifikatu behar da estalitako arrisku bakoitza, tresnaren zati bakoitza izendatu behar da estalitako partida konkretuen estaldura bezala, eta efikazia demostratu.

Era berean, bi deribatu edo gehiago batera izenda daitezke estaldura-tresna bezala, edo horien proportzioak, edo, kanbio-tasen estaldura denean, bi tresna finantzario edo gehiago edo horien proportzioak, edo batzuen eta besteen konbinazioak ere bai, baita deribatu batzuen arriskuek beste batzuetatik sortutakoak konpentsatzen dituztenean ere. Hala ere, ezingo dira izendatu estaldura-tresna bezala:

– Jaulkitako opzioak, ez baldin badira erositako opzioak konpentsatzeko izendatzen, barne hartuz tresna finantzario hibrido bateko implizituak.

– Jaulkitako opzio bat eta erositako beste bat konbinatzen dituzten opzioak, bien emaitza garbia jaulkitako opzio batena denean.

– Kostuan baloratutako ondare-tresnak eta horien deribatuak, azpiko balore horiek fisikoki entregatuz likidatzen badira.

– Erakundeak jaulkitako ondare-tresnak.

#### 6.2.– Estalitako partidak.

Estalitako partida izan daitezke: kontabilizatutako aktiboak eta pasiboak, kontabilizatu gabeko konpromiso irmoak, aurreikusita dauden probabilitate handiz exekututako diren transakzioak eta atzerriko negozio batean egindako inbertsio garbiak, bakoitza bere aldetik hartuta edo arrisku-ezaugarrien arabera antzekoak multzokatuta, erakundearentzat arrazoizko balioan edo diru-fluxuetan aldaketak izateko espe-zifikoki identifikatutako arriskua sortzen dutenean. Estalitako partida antzeko arriskua duten aktibo eta pasiboen multzo bat denean, elementu bakoitzaren arrazoizko balioan estalitako arriskuarengatik izandako aldaketak gutxi gorabehera proportzionala izan beharko du estalitako arriskuagatik elementu multzo osoaren arrazoizko balioan izandako aldaketarekiko. Aurrekoari kalterik egin gabe, ezingo da estalitako partidatzat hartu aktibo eta pasiboen posizio garbi bat.

Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen aurreikuspen-planetako jardueren hornidurak estali ahal izango dira, baldin eta isolagarriak eta neurgarriak badira arrisku finantzario eta biometrikoengatik diru-fluxuetan edo arrazoizko balioan izan ditzaketan aldaketak; bestela, jasaten dituzten arrisku guztien multzoagatik estali ahal izango dira.

Aurreikusitako transakzioak estali ahal izango dira, soil-soilik, diru-fluxuetan izan ditzaketan aldaketek galdu-irabazien kontuan eragina izan dezaketenean.

– En el supuesto de cobertura de más de un riesgo, se han de identificar claramente los diferentes riesgos cubiertos, designar cada parte del instrumento como cobertura de las partidas cubiertas concretas y demostrar su eficacia.

Asimismo, dos o más derivados, o proporciones de los mismos o, en el caso de una cobertura de tipos de cambio, dos o más instrumentos financieros o proporciones de los mismos, o una combinación de unos y otros, pueden ser designados conjuntamente como instrumentos de cobertura, incluso en el caso en que los riesgos de unos derivados compensen los procedentes de otros. No obstante lo anterior, no podrán ser designados como instrumentos de cobertura:

– Las opciones emitidas, salvo que se designen para compensar opciones compradas, incluyendo las implícitas en un instrumento financiero híbrido.

– Las opciones que combinan una opción emitida y otra comprada cuando su efecto neto sea el de una opción emitida.

– Los instrumentos de patrimonio valorados por su coste y los derivados que tengan como subyacente dichos valores y se liquiden mediante la entrega física de éstos.

– Los instrumentos de patrimonio emitidos por la entidad.

#### 6.2.– Partidas cubiertas.

Las partidas cubiertas pueden ser los activos y pasivos reconocidos, los compromisos en firme no reconocidos, las transacciones previstas altamente probables de ejecución y las inversiones netas en negocios en el extranjero que, considerados individualmente o en grupos con similares características de riesgo, expongan a la entidad a riesgos específicamente identificados de variaciones en el valor razonable o en los flujos de efectivo. Si la partida cubierta fuera un grupo de activos y pasivos con similares características de riesgo, el cambio en el valor razonable atribuible al riesgo cubierto para cada elemento individual deberá ser aproximadamente proporcional al cambio total en el valor razonable del grupo de elementos debido al riesgo cubierto. Sin perjuicio de lo anterior, no podrá considerarse como partida cubierta una posición neta de activos y pasivos.

Las provisiones de las actividades de los planes de previsión de las Entidades de Previsión Social Voluntaria podrán ser cubiertas, siempre que resulten aislables y medibles los cambios en sus flujos de efectivo o en su valor razonable asociados a sus distintos riesgos financieros y biométricos; en su defecto, podrán ser cubiertas por la totalidad de los riesgos que soporten.

Las transacciones previstas únicamente podrán ser cubiertas cuando supongan una exposición a las variaciones en los flujos de efectivo que podrían afectar a la cuenta de pérdidas y ganancias.

Edozein kasutan, arau hauek bete beharko dira:

– Mugaegunera arte mantendutako inbertsioen kategorian sartutako aktibo finantzarioak estali ahal izango dira kreditu- eta kanbio-arriskuagatik, baina ez interes-tasaren arriskuagatik edo ordainketa aurre-ratzeko arriskuagatik, eta aktibo horien diru-fluxuen berrinbertsio-arriskua estaltzeko eragozpenik gabe.

– Aktibo finantzarioak eta pasibo finantzarioak zati batean estali ahal izango dira, zenbateko jakin batean edo diru-fluxuen edo arrazoizko balioaren portzentaje jakin batean, estalduraren efikazia neurgarria bada betiere. Hori izango litzateke arrisku gabeko interes-tasarekiko esposizioa bakarrik estaltzea edo erreferentziako interes-tasa baten osagai batekiko esposizioa bakarrik estaltzea.

– Aktibo eta pasibo ez finantzarioak estalitako partida bezala izendatu ahal izango dira soil-soilik:

- a) kanbio-tasaren arriskua estaltzeko, eta
- b) arrisku guztien multzoa estaltzeko.

– Negozio-konbinazio batean negozio bat erosteko konpromiso irmoak, kanbio-tasaren arriskuarengatik bakarrik izan daitezke estalitako partida.

– Taldeko erakundeen, talde anitzekoen eta elkartuen ondarean egindako inbertsioak ezin dira arrazoizko balioaren estalduretan estalitako partida bezala izendatu, interes-tasen aldakuntzengatik izan ezean.

### 6.3.– Estalduraren efikazia.

Kontabilitate-estaldura baten efikaziak, fidagarritasunez zenbatesteko modukoa izan behar du, eta estalitako arriskuarengatik, estaldura izendatutako epealdian, arrazoizko balioan edo diru-fluxuetan izandako aldaketak konpentsatzeko ahalmena adierazten du. Estaldura-erlazioa behar den bezala dokumentatu behar da hasieran, eta adierazi behar dira:

– Estaldura-tresnaren identifikazioa, estalitako partidarena, estalitako arriskuaren izaera, helburua eta estrategia.

– Estaldura-tresnaren bizitzan zehar daukan efikazia baloratzeko irizpidea eta metodoa, kontuan izanik, erakundearen arriskua kudeatzeko strategiari ongien egokitzen zaiona izan behar duela, eta posible dela estaldura desberdinentzat metodo desberdinak hautatzea.

Estaldura bat oso efikaza dela esango da baldin eta, hasieran eta bere bizitza osoan, (i) arrazoiz espero izatekoa bada, prospekzioz, estalitako partidaren arrazoizko balioan edo diru-fluxuetan izandako aldaketak (estalitako arriskuari egozteko modukoak direnak) konpentsatu egingo direla, ia osorik, estaldura-tresnaren arrazoizko balioaren edo diru-fluxuen aldaketekin, eta (ii), atzera begiratuta, estalduraren

En todo caso, deberá atenderse a las siguientes reglas:

– Los activos financieros incluidos en la categoría de inversiones mantenidas hasta el vencimiento podrán ser cubiertos por riesgo de crédito y de cambio, pero no por riesgo de tipo de interés ni por riesgo de pago anticipado, sin perjuicio de que pueda cubrirse el riesgo de reinversión de sus flujos de efectivo.

– Los activos financieros y pasivos financieros podrán cubrirse parcialmente, en un determinado importe o porcentaje de sus flujos de efectivo o de su valor razonable, siempre que pueda medirse la eficacia de la cobertura. Tal sería el caso de una cobertura sólo a la exposición al tipo de interés libre de riesgo o a un componente de un tipo de interés de referencia.

– Los activos y pasivos no financieros sólo podrán ser designados como partidas cubiertas:

- a) para cubrir el riesgo de tipo de cambio, y
- b) para cubrir el conjunto de todos los riesgos.

– Un compromiso en firme de adquirir un negocio en una combinación de negocios sólo puede ser partida cubierta por cobertura del riesgo de tipo de cambio.

– Las inversiones en el patrimonio de entidades del grupo, multigrupo y asociadas no pueden ser designadas como partidas cubiertas en coberturas del valor razonable, salvo por las variaciones de los tipos de cambio.

### 6.3.– Eficacia de la cobertura.

La eficacia de una cobertura contable, que deberá poderse estimar de forma fiable, vendrá determinada por su capacidad de compensar los cambios en el valor razonable o en los flujos de efectivo atribuibles al riesgo cubierto, durante el periodo para el que se haya designado la cobertura. La relación de cobertura habrá de quedar debidamente documentada en el momento inicial, con indicación de:

– La identificación del instrumento de cobertura, de la partida cubierta, la naturaleza del riesgo cubierto, su objetivo y estrategia.

– El criterio y método para valorar su eficacia durante la vida del instrumento de cobertura, el cual habrá de ser aquél que mejor se adapte a la estrategia de gestión del riesgo por la entidad, siendo posible adoptar métodos diferentes para las distintas coberturas.

Una cobertura se considerará eficaz si, al inicio y durante su vida, (i) se espera razonablemente que prospectivamente los cambios en el valor razonable o en los flujos de efectivo de la partida cubierta atribuibles al riesgo cubierto serán compensados casi completamente por los cambios en el valor razonable o en los flujos de efectivo del instrumento de cobertura y, (ii) retrospectivamente, los resultados de la co-

emaitzak % 80tik %125erako aldaketa-bitarte baten barruan ibili badira, estalitako partidaren emaitzarekin konparatuta.

#### 6.4.– Estaldura motak.

Arau honen ondoretarako, honela sailkatzen dira kontabilitate-estaldurak:

– Arrazoizko balioaren estaldura: kontabilizatutako aktibo edo pasiboen edo oraindik kontabilizatu gabeko konpromiso irmoen, edo horien zati baten, arrazoizko balioan arrisku jakin baten ondorioz galdu-irabazien kontuan eragina izan dezaketen aldaketak estaltzen ditu (adibidez, trukaketa finantzario bat kontratatzea, interes-tasa finkoko finantzaketa baten arriskua estaltzeko).

– Diru-fluxuen estaldura: kontabilizatutako aktibo edo pasiboekin edo aurreikusita dagoen probabilitate handiko transakzio batekin lotutako arrisku jakin bati egozten zaion diru-fluxuen aldaketa-arriskua estaltzen du, baldin eta galdu-irabazien kontuan eraginik izan badezake (adibidez, ibilgetu materiala, ondasunak eta zerbitzuak atzerri-monetan saldu edo erostearekin erlazionatutako kanbio-tasaren arriskuaren estaldura, edota trukaketa finantzario bat kontratatzea interes-tasa aldakorreko finantzaketa baten arriskua estaltzeko).

– Atzerriko negozio batean egindako inbertsio garbiaren estaldura: jarduera atzerrian edo beste moneta batean (urteko kontuak egiten dituen erakundearena ez den moneta funtzional batean) egiten duten mendeko erakundeetan, erakunde elkartuetan eta baterako negozioetan eta sukurtsaletan egindako inbertsioen edo partaidetzen kanbio-tasaren arriskua estaltzen du.

#### 6.5.– Estalduren kontabilizatzea.

##### a) Arrazoizko balioaren estaldura.

Estaldura-tresnaren balioaren aldakuntzengatik sortutako galera edo irabazia (estaldura-tresna deribatua denean) edo, atzerri-monetari buruzko arauaren arabera baloratuta, liburu-balioaren kanbio-tasaren osagaiaren aldakuntzengatik sortutakoak (estaldura-tresna deribatua ez denean), ekitaldiko emaitzan kontabilizatuko da.

Estalitako partidaren estalitako arriskuagatik izandako galera edo irabazia, estalitako partidaren liburu-balioan doitu da, eta ekitaldiko emaitzan kontabilizatuko da, baloratzeko erregimena edozein izanda ere.

Estalitako partidaren arrazoizko balioan izandako aldaketak estalitako arriskuari egoztekoak ez direnean, partida sailkatuta dagoen kategoriari dagokion balorazio-erregimenarekin kontabilizatuko dira, erregistratzeko eta baloratzeko arau honetan aurreikusita-koaren arabera.

bertura han oscilado dentro de un rango de variación del 80% al 125% respecto del resultado de la partida cubierta.

#### 6.4.– Tipos de cobertura.

A los efectos de esta norma las coberturas contables se clasifican en:

– Cobertura del valor razonable: cubre la exposición a los cambios en el valor razonable de activos o pasivos reconocidos o de compromisos en firme aún no reconocidos, o de una parte concreta de los mismos, atribuible a un riesgo en particular que pueda afectar a la cuenta de pérdidas y ganancias (por ejemplo, la contratación de una permuta financiera para cubrir el riesgo de una financiación a tipo de interés fijo).

– Cobertura de los flujos de efectivo: cubre la exposición a la variación de los flujos de efectivo que se atribuya a un riesgo concreto asociado a activos o pasivos reconocidos o a una transacción prevista altamente probable, siempre que pueda afectar a la cuenta de pérdidas y ganancias (por ejemplo, la cobertura del riesgo de tipo de cambio relacionado con compras y ventas previstas de inmovilizados materiales, bienes y servicios en moneda extranjera o la contratación de una permuta financiera para cubrir el riesgo de una financiación a tipo de interés variable).

– Cobertura de la inversión neta en un negocio en el extranjero: cubre el riesgo de tipo de cambio en las inversiones o participaciones en entidades dependientes, asociadas, negocios conjuntos y sucursales cuyas actividades estén basadas o se lleven a cabo en un país diferente o en una moneda funcional distinta a la de la entidad que elabora las cuentas anuales.

#### 6.5.– Contabilización de las coberturas.

##### a) Cobertura del valor razonable.

La pérdida o ganancia procedente de las variaciones en el valor del instrumento de cobertura (para un derivado que sea instrumento de cobertura) o el componente de tipo de cambio del importe en libros valorado de acuerdo con la norma relativa a moneda extranjera (para un instrumento de cobertura que no sea un derivado) se reconocerá en el resultado del ejercicio.

La pérdida o ganancia de la partida cubierta atribuible al riesgo cubierto ajustará el importe en libros de la partida cubierta y se reconocerá en el resultado del ejercicio con independencia de su régimen de valoración.

Los cambios en el valor razonable de la partida cubierta no relacionados con el riesgo cubierto se reconocerán conforme al régimen de valoración que corresponda según en la categoría en la que se encuentre clasificada de acuerdo con lo previsto en esta norma de registro y valoración.

Estalitako partidari interes-tasa efektiboaren metodoa aplikatzen zaionean eta kontabilitate-balioa doitzen zaionean estalitako arriskuak eragindako aldaketengatik, partidak arrazoizko balioaren aldaketen aurrean estalita egoteari uzten dionean, doikuntza horren zenbatekoa galdu-irabazien kontuan kontabilizatuko da, mugaegunera arte geratzen zaion denboran, eta horretarako interes-tasa efektiboaren metodoa erabiliko da, estaldura-erlazioa amaitzen den egunean birkalkulatuta.

Kontabilizatu gabeko konpromiso irmo bat estalitako partida izendatzen denean, partida horren arrazoizko balioaren estalitako arriskuagatik gertatzen diren aldaketak aktibo edo pasibo moduan kontabilizatuko dira, ekitaldiko galeraren edo irabaziaren kontuan zordunduta edo abonatuta. Arrazoizko balioaren aldaketen balio metatuak, halakorik dagoenean, erakundeak konpromiso irmoa betetzen duenean ateratzen den aktiboaren edo pasiboaren hasierako liburu-balioa doituko du.

Konpromiso irmo baten kanbio-tasaren arrisku-estaldura, arrazoizko balioaren estaldura bezala edo diru-fluxuen estaldura bezala kontabiliza daiteke.

Edozein kasutan, erakundeak arrazoizko balioaren estalduren kontabilitatea eten egingo du, prospektiboki, hauetako baldintzaren bat betetzen denean: (i) estaldura-tresna iraungitzen, saltzen, suntsiarazten edo egikaritzen bada; alde honetatik, estaldura-tresna bat beste batekin ordezte edo berritzea ez da iraungitzea edo suntsiaraztea izango baldin eta ordezte edo berritze hori erakundeak dokumentatutako estaldura-estrategiaren zati bada; (ii) estaldurak arau honetan ezarritako betebeharrak betetzeari uzten badio; edo (iii) erakundeak izendapena errebotatzen edo indargabetzen badu.

b) Diru-fluxuen estaldura.

Estaldura efikaz bezala kalifikatutako estaldura-tresnaren zatiari egotz dakiokkeen irabazia edo galera ondare garbian kontabilizatuko da behin-behinean. Zenbatekoa bi balio hauen arteko txikiena izango da, termino absolutuetan: (i) estaldura-tresnak estalduraren hasieratik metatutako irabazia edo galera eta (ii) estalduraren hasieratik estalitako partidatik etorkizunean espero diren diru-fluxuen balio eguneratuaren aldaketa metatua. Estaldura-tresnaren gainerako irabazia edo galera estaldura-tresnaren izaerari dagokion bezala kontabilizatuko da, erregistratzeko eta baloratzeko arau honen 1. idatz-zatitik 5.era bitartekoetan ezarritakoaren arabera.

Ondare garbian kontabilizatutako galdu-irabazien zenbateko metatua ez da egotziko galdu-irabazien kontura harik eta estalitako partidek galdu-irabazien kontu horretan eragina izan arte, salbu eta: (i) erakundeak espero duenean galdu-irabazi horiek denak edo zati bat ez direla berreskuratuko etorkizunean, orduan, berreskuratzea espero ez den zenbatekoa

Cuando a la partida cubierta se le aplique el método del tipo de interés efectivo y su valor contable se ajuste ante variaciones derivadas del riesgo cubierto, una vez que esta partida deje de estar cubierta de las variaciones de su valor razonable, el importe de dicho ajuste se reconocerá en la cuenta de pérdidas y ganancias durante el periodo que reste hasta su vencimiento, utilizando para ello el método del tipo de interés efectivo recalculado en la fecha en que cesó la relación de cobertura.

Cuando un compromiso en firme no reconocido se designe como partida cubierta, el cambio en el valor razonable del mismo, que sea atribuible al riesgo cubierto, se reconocerá como un activo o pasivo con cargo o abono en la cuenta de pérdida o ganancia del ejercicio. El cambio acumulado de las variaciones en el valor razonable reconocido ajustará, en su caso, el importe en libros inicial del activo o pasivo que resultase del cumplimiento por la entidad del compromiso en firme.

La cobertura del riesgo de tipo de cambio de un compromiso en firme puede ser contabilizada como una cobertura del valor razonable o una cobertura de flujos de efectivo.

En todo caso, la entidad interrumpirá la contabilidad de coberturas del valor razonable de forma prospectiva cuando concurra cualquiera de las siguientes condiciones: (i) el instrumento de cobertura expire, fuese vendido, resuelto o ejercido; a este respecto, la sustitución o la renovación sucesiva de un instrumento de cobertura por otro no es una expiración o resolución si dicha sustitución o renovación es parte de la estrategia de cobertura documentada por la entidad; (ii) la cobertura dejase de cumplirse requisitos previstos en esta norma; o (iii) la entidad revocase la designación.

b) Cobertura de flujos de efectivo.

La ganancia o pérdida atribuible a la parte del instrumento de cobertura calificado como cobertura eficaz se reconocerá transitoriamente en el patrimonio neto. Su importe será el menor en términos absolutos entre: (i) la ganancia o pérdida acumulada por el instrumento de cobertura desde el inicio de la cobertura y (ii) la variación acumulada en el valor actual de los flujos de efectivo futuros esperados de la partida cubierta desde el inicio de la cobertura. El resto de la ganancia o pérdida del instrumento de cobertura se reconocerá, atendiendo a la naturaleza del instrumento de cobertura según lo previsto en los apartados 1 al 5 de la presente norma de registro y valoración.

El importe acumulado de las pérdidas y ganancias reconocidas en el patrimonio neto no se imputarán en la cuenta de pérdidas y ganancias hasta que las partidas cubiertas afecten a dicha cuenta de pérdidas y ganancias, salvo que: (i) la entidad espere que la totalidad o parte de las mismas no vayan a ser recuperadas en el futuro, en cuyo caso, el importe que no

ekitaldiko emaitza bezala birsailkatuko baita eta (ii) aktibo edo pasibo ez finantzario bat kontabilizatu amaituko den transakzio aurreikusi bati dagokion estaldura denean, orduan, ondare garbian erregistratutako zenbatekoak, aktiboaren edo pasiboaren kostuan sartuko baitira, aktiboa eskuratzen edo pasiboa asumitzen denean.

Diru-fluxuaren estaldura eteten denean, arrazoizko balioaren estaldurarako goian azaldutako suposamenduren bat betetzen delako, estaldura indarrean zegoen bitartean ondare garbian kontabilizatu zen estaldura-tresnaren zenbateko metatuak bertan kontabilizaturatuta jarraituko du, harik eta estalitako transakzioa burutu arte, eta une horretan aplikatuko dira aurreko paragrafoan aurreikusitako irizpideak, nola eta ez den aurreikusten transakzioa ez dela burutuko, kasu horretan ekitaldiko galdu-irabazien kontuan kontabilizaturatuko baita.

c) Atzerriko negozioetan egindako inbertsio garbieraren estaldura

Nortasun juridiko independenterik ez duten baterako negozioetan eta atzerriko sukurtsaletan egindako inbertsio garbiak estaltzeko eragiketetan, estalitako arriskuari egotzekoak diren estaldura-tresnen balioaldaketak ondare garbian kontabilizaturatuko dira behin-behinean, eta galdu-irabazien kontura egotziko dira, atzerriko negozioetako inbertsio garbia besterentzen den edo bestela xedatzen den ekitaldian edo ekitaldietan.

Atzerriko mendeko sozietateetan, talde anitzekotan eta elkartuetan egindako inbertsio garbiak estaltzeko eragiketak arrazoizko balioaren kanbio-tasaren osagaiaren estaldura bezala trataturatuko dira.

Atzerriko negozio batean egindako inbertsio garbian sartzen da, ondare garbian duen partaidetzaz gainera, kobratu edo ordaindu beharreko edozein partida monetario, likidatzea aurreikusten ez dena edo etorkizun aurreikusgarrian likidatzea probablea ez dena, partida komertzialak alde batera utzita.

Estaldura-tresnak beren izaeraren arabera baloratu eta erregistraturatuko dira, estaldura efikaz ez diren edo izateari uzten dioten neurrian.

#### 9.- Aseguru-kontratuak.

Hala dagokionean, osagarri gisa, Erakunde Aseguratzailleen Kontabilitate Planaren 9. araua aplikaturatuko da.

#### 10.- Atzerri-moneta.

##### 1) Atzerri-monetan egindako transakzioak.

Atzerri-monetako transakzioak dira zenbatekoa funtzionala ez den moneta batean izendaturatuta daukatena edo funtzionala ez den moneta batean likidaturatuko beharrekoak.

se espere recuperar se reclasificará como resultado del ejercicio y (ii) salvo que la cobertura corresponda a una transacción prevista que termine en el reconocimiento de un activo o pasivo no financiero, en cuyo caso los importes registrados en el patrimonio neto se incluirán en el coste del activo o pasivo cuando sea adquirido o asumido.

Cuando se interrumpa la cobertura del flujo de efectivo por darse alguno de los supuestos enumerados anteriormente para la cobertura del valor razonable, el importe acumulado del instrumento de cobertura reconocido en el patrimonio neto mientras la cobertura fue efectiva se continuará reconociendo en dicha partida hasta que la transacción cubierta ocurra, momento en el que se aplicarán los criterios previstos en el párrafo anterior, salvo que se prevea que no se va a realizar la transacción, en cuyo caso se reconocerá en la cuenta de pérdidas y ganancias del ejercicio.

c) Cobertura de la inversión neta en un negocio en el extranjero

En las operaciones de cobertura de inversiones netas en negocios conjuntos que carezcan de personalidad jurídica independiente y sucursales en el extranjero, los cambios de valor de los instrumentos de cobertura atribuibles al riesgo cubierto, se reconocerán transitoriamente en el patrimonio neto, imputándose a la cuenta de pérdidas y ganancias en el ejercicio o ejercicios en que se produzca la enajenación o disposición por otra vía de la inversión neta en el negocio en el extranjero.

Las operaciones de cobertura de inversiones netas en negocios en el extranjero en sociedades dependientes, multigrupo y asociadas, se tratarán como coberturas de valor razonable por el componente de tipo de cambio.

La inversión neta en un negocio en el extranjero está compuesta, además de por la participación en el patrimonio neto, por cualquier partida monetaria a cobrar o pagar, cuya liquidación no está contemplada ni es probable que se produzca en un futuro previsible, excluidas las partidas de carácter comercial.

Los instrumentos de cobertura se valorarán y registrarán de acuerdo con su naturaleza en la medida en que no sean, o dejen de ser, coberturas eficaces.

#### 9.- Contratos de seguros.

Cuando proceda se aplicará, de manera supletoria, la Norma 9.<sup>a</sup> del Plan de Contabilidad de las Entidades Aseguradoras.

#### 10.- Moneda extranjera.

##### 1) Transacciones en moneda extranjera.

Una transacción en moneda extranjera es aquella cuyo importe se denomina o exige su liquidación en una moneda distinta de la funcional.

Erakundeak lan egiten duen inguru ekonomiko nagusiko moneta da moneta funtzionala. Kontrako frogarik ezean, erakundeen moneta funtzionala euroa dela pentsatuko da.

Arau honen ondoreetarako, sailkapen honen arabera bereiziko dira ondare-elementuak:

a) Diruzko partidak: eskudirua, eta diru-unitatetan zehaztutako edo zehatz daitekeen kopuru batean hartu edo ordainduko diren aktiboak eta pasiboak. Besteak beste, hor sartzen dira, aurreko baldintzak betetzen dituzten maileguak eta kobratzeko partidak, zorrak eta ordaintzeko partidak eta zorra adierazten duten baloreetan egindako inbertsioak. Oro har, hornidura teknikoak diru-partidatzat hartuko dira, horniduraren balioa partida ez-monetarioei erreferentzia eginez erabakitzen denean izan ezik.

b) Diruaz bestelako partidak: diruzko partidatzat jotzen ez diren aktiboak eta pasiboak dira, hau da, diru-unitatetan zehaztutako edo zehatz daitekeen kopuru batean hartu edo ordainduko ez direnak. Hauek sartzen dira, besteak beste: ibilgetu materialak, ondasun higiezinak inbertsioak, merkataritzea-fondoa eta beste ibilgetu ukiezin batzuk, aurreko baldintzak betetzen dituzten beste erakunde batzuetako ondarean egindako inbertsioak, salmenten edo erosketen kontura egindako aurrerakinak, eta diruaz bestelako aktibo bat entregatuz likidatu beharreko pasiboak.

#### 1.1.– Hasierako balorazioa.

Atzerri-monetan egindako transakzio oro moneta funtzionalera bihurtuko da, atzerri-monetako zenbatekoari bi moneten arteko eskurako kanbio-tasa aplikatuta, hau da, transakzio-datan berehala entregatzeko transakzioetan erabiltzen den kanbio-tasa aplikatuta, eta transakzio-data eragiketa kontabilizatzeko baldintzak betetzen diren eguna dela ulertuta.

Denboraldiko (gehienez, hilabeteko) batez besteko kanbio-tasa erabili ahal izango da denbora-bitarte horretan egiten diren transakzio guztietarako, transakzioak egiteko erabili den atzerri-moneta mota bakoitzean, kontuan hartutako denbora-bitartean kanbio-tasak gorabehera handirik izan ez badu.

#### 1.2.– Geroko balorazioa.

##### 1.2.1.– Diruzko partidak.

Ekitaldi-itxieran baloratuko dira, itxierako kanbio-tasa aplikatuta, hau da, data horretan dagoen eskurako batez besteko kanbio-tasa aplikatuta.

Prozesu horretan sortzen diren kanbio-diferentzia positiboak nahiz negatiboak, eta ondare-elementu horiek likidatzean sortzen direnak, sortzen diren ekitaldiko galdu-irabazien kontuan kontabilizatuko dira.

Salgarritzat sailkatutako diruzko aktibo finantziarioen kasu berezian, transakzio-dataren eta ekitaldia-

La moneda funcional es la moneda del entorno económico principal en el que opera la entidad. Se presumirá, salvo prueba en contrario, que la moneda funcional de las Entidades es el euro.

A los efectos de esta norma, los elementos patrimoniales se diferenciarán, según su consideración, en:

a) Partidas monetarias: son el efectivo, así como los activos y pasivos que se vayan a recibir o pagar con una cantidad determinada o determinable de unidades monetarias. Se incluyen, entre otros, los préstamos y partidas a cobrar, los débitos y partidas a pagar y las inversiones en valores representativos de deuda que cumplan los requisitos anteriores. Con carácter general, las provisiones técnicas se considerarán partidas monetarias, salvo que su valor venga determinado con referencia a partidas no monetarias.

b) Partidas no monetarias: son los activos y pasivos que no se consideren partidas monetarias, es decir, que se vayan a recibir o pagar con una cantidad no determinada ni determinable de unidades monetarias. Se incluyen, entre otros, los inmovilizados materiales, inversiones inmobiliarias, el fondo de comercio y otros inmovilizados intangibles, las inversiones en el patrimonio de otras entidades que cumplan los requisitos anteriores, los anticipos a cuenta de compras o ventas, así como los pasivos a liquidar mediante la entrega de un activo no monetario.

#### 1.1.– Valoración inicial.

Toda transacción en moneda extranjera se convertirá a moneda funcional, mediante la aplicación al importe en moneda extranjera, del tipo de cambio de contado, es decir, del tipo de cambio utilizado en las transacciones con entrega inmediata, entre ambas monedas, en la fecha de la transacción, entendida como aquella en la que se cumplan los requisitos para su reconocimiento.

Se podrá utilizar un tipo de cambio medio del periodo (como máximo mensual) para todas las transacciones que tengan lugar durante ese intervalo, en cada una de las clases de moneda extranjera en que éstas se hayan realizado, salvo que dicho tipo haya sufrido variaciones significativas durante el intervalo de tiempo considerado.

#### 1.2.– Valoración posterior.

##### 1.2.1.– Partidas monetarias.

Al cierre del ejercicio se valorarán aplicando el tipo de cambio de cierre, entendido como el tipo de cambio medio de contado, existente en esa fecha.

Las diferencias de cambio, tanto positivas como negativas, que se originen en este proceso, así como las que se produzcan al liquidar dichos elementos patrimoniales, se reconocerán en la cuenta de pérdidas y ganancias del ejercicio en el que surjan.

En el caso particular de los activos financieros de carácter monetario clasificados como disponibles para



ren itxierako dataren artean kanbio-tasaren aldakuntzengatik izandako kanbio-diferentziak kalkulatzeko, aktibo horiek atzerriko monetan amortizatutako kostuan baloratuko balira bezala egingo da, eta, horrela, kanbio-tasaren aldakuntzen ondorioz kostu amortizatu horretan izan diren aldaketetatik ateratakoak izango dira kanbio-diferentziak, arrazoizko balioa alde batera utzita. Horrela kalkulaturako kanbio-diferentziak, sortzen diren ekitaldiko galdu-irabazien kontuan kontabilizatuko dira; aldiz, aktibo finantzario horien liburu-balioan izandako aldaketak zuzenean kontabilizatuko dira ondare garbian, tresna finantzarioei buruzko arauko 2.6.2 idatz-zatian ezarritakoaren arabera.

#### 1.2.2.– Diruaz bestelako partidak.

1.2.2.1.– Kostu historikoan baloratutako diruaz bestelako partidak.

Transakzio-datako kanbio-tasa aplikatuz baloratuko dira.

Atzerri-monetan izendatutako aktibo bat amortizatzen bada, amortizaziorako zuzkidurak moneta funtzionalerako zenbatekoaren gainean kalkulaturako dira, hasieran erregistratu zen datako kanbio-tasa aplikatuta.

Horrela lortutako balorazioa ezingo da izan, gero hori itxiera bakoitzean, une horretako zenbateko berreskuragarria baino handiagoa. Zenbateko berreskuragarria kalkulatzeko, behar izanez gero, itxierako kanbio-tasa aplikaturako da, hau da, urte horretako kontuen itxiera-egunekoak.

Tresna finantzarioei buruzko arauan xedatutakoaren arabera, erakunde partaidetu baten ondare garbia erabaki behar bada, balorazio-datan egon litezkeen plusbalio tazituei dagokien balio-zuzenketa eginda, itxierako kanbio-tasa aplikaturako zaie ondare garbiari eta data horretan dauden plusbalio tazituei.

Hala ere, inflazio-tasa handiak dituzten atzerriko erakundeak direnean, kontuan hartu beharreko balio horiek egoera-orri finantzario doituetatik atera behar dira, bihurtuta egin aurretik. Merkataritzako Kodea garatzen duten Urteko Kontu Kontsolidatuak Formulatzeko Arauetan «Inflazio-tasa handiengatik egin beharreko doikuntzei» buruz ezarritako irizpideen arabera egingo dira doikuntzak.

Inflazio-tasa handiak daudela esango da herrialde baten ingurune ekonomikoan halako ezaugarri jakin batzuk ematen direnean, horien artean sartuz, besteak beste, honako hauek:

a) Hiru urteko inflazio-tasa metatua % 100era hurbildu edo hortik gora igotzea.

la venta, la determinación de las diferencias de cambio producidas por la variación del tipo de cambio entre la fecha de la transacción y la fecha del cierre del ejercicio, se realizará como si dichos activos se valorasen al coste amortizado en la moneda extranjera, de forma que las diferencias de cambio serán las resultantes de las variaciones en dicho coste amortizado como consecuencia de las variaciones en los tipos de cambio, independientemente de su valor razonable. Las diferencias de cambio así calculadas se reconocerán en la cuenta de pérdidas y ganancias del ejercicio en el que surjan, mientras que los otros cambios en el importe en libros de estos activos financieros se reconocerán directamente en el patrimonio neto de acuerdo con lo dispuesto en el apartado 2.6.2 de la norma relativa a instrumentos financieros.

#### 1.2.2.– Partidas no monetarias.

1.2.2.1.– Partidas no monetarias valoradas a coste histórico.

Se valorarán aplicando el tipo de cambio de la fecha de la transacción.

Cuando un activo denominado en moneda extranjera se amortice, las dotaciones a la amortización se calcularán sobre el importe en moneda funcional aplicando el tipo de cambio de la fecha en que fue registrado inicialmente.

La valoración así obtenida no podrá exceder, en cada cierre posterior, del importe recuperable en ese momento, aplicando a este valor, si fuera necesario, el tipo de cambio de cierre; es decir, de la fecha a la que se refieren las cuentas anuales.

Cuando, de acuerdo con lo dispuesto en la norma relativa a instrumentos financieros, se deba determinar el patrimonio neto de una entidad participada corregido, en su caso, por las plusvalías tácitas existentes en la fecha de valoración, se aplicará el tipo de cambio de cierre al patrimonio neto y a las plusvalías tácitas existentes a esa fecha.

No obstante, si se tratase de entidades extranjeras que se encuentren afectadas por altas tasas de inflación, los citados valores a considerar deberán resultar de estados financieros ajustados, con carácter previo a su conversión. Los ajustes se realizarán de acuerdo con los criterios incluidos sobre «ajustes por altas tasas de inflación» en las Normas para la Formulación de las Cuentas Anuales Consolidadas, que desarrollan el Código de Comercio.

Se considera que existen altas tasas de inflación cuando se den determinadas características en el entorno económico de un país, entre las que se incluyen, de forma no exhaustiva, las siguientes:

a) La tasa acumulativa de inflación en tres años se aproxime o sobrepase el 100%.

b) Jendeak, oro har, bere aberastasuna diruaz bestelako aktibotan edo atzerriko beste moneta egonkor batean eduki nahi izatea.

c) Diru-kopuruaren erreferentzia atzerriko beste moneta egonkor batean egitea, eta are prezioak beste moneta batean ezartzera iristea.

d) Kredituan egindako salmenta eta erosketen prezioetan, erosteko ahalmenak epe horretan galtzea espero dena konpentsatzea, baita epea laburra denean ere.

e) Interes-tasak, soldatak eta prezioak prezio-indize baten eboluzioarekin lotzea.

1.2.2.2.- Arrazoizko balioan baloratutako diruaz bestelako partidak.

Arrazoizko balioa erabakitzen den eguneko kanbio-tasa aplikatuz baloratuko dira.

Diruaz bestelako partida baten balorazioan izandako aldaketetatik sortutako galerak edo irabaziak zuzenean ondare garbian kontabilizatzen direnean (aktibo finantzario salgarri bezala sailkatutako ondare-tresnetan egindako inbertsioak direnean, adibidez), galera edo irabazi horietan sartzen diren kanbio-diferentziak ere zuzenean kontabilizatuko dira ondare garbian. Aldiz, diruaz bestelako partida baten balorazioan izandako aldaketetatik sortutako galerak edo irabaziak ekitaldiko galdu-irabazien kontuan kontabilizatzen direnean (negoziatzeko mantendutako aktibo finantzario bezala edo galdu-irabazien bitartez arrazoizko balioan baloratutako bestelako aktibo finantzario bezala sailkatutako ondare-tresnetan egindako inbertsioak direnean, adibidez), galera edo irabazi horietan sartutako kanbio-diferentziak ere ekitaldiko emaitzan kontabilizatuko dira.

## 2) Urteko kontuak aurkezpen-monetara bihurtzea.

Urteko kontuak formulatzeko erabiltzen den moneta da aurkezpen-moneta, hau da, euroa.

Salbuespenez, erakunde baten moneta funtzionala euroa ez denean, Merkataritzako Kodea garatzen duten Urteko Kontu Kontsolidatuak Formulatzeko Arauetan «Aurkezpen-monetaz bestelako moneta funtzionalean egindako egoera-orri finantzarioen bihurtetari» buruz ezarritako irizpideak aplikatuz bihurtuko dira erakundearen urteko kontuak aurkezpen-monetara.

Bihurketa-diferentziak ondare garbian erregistratuko dira zuzenean.

Erakunde batek beste batzuekin batera kontrolatutako atzerriko aktiboetan edo ustiapenetan parte hartzen duenean baterako negozioei buruzko arauak definitzen denaren arabera, eta negozio horietako moneta funtzionala euroa ez denean, lehen esanda-

b) La población en general prefiera conservar su riqueza en activos no monetarios o en otra moneda extranjera estable.

c) Las cantidades monetarias se suelen referenciar en términos de otra moneda extranjera estable, pudiendo incluso los precios establecerse en otra moneda.

d) Las ventas y compras a crédito tengan lugar a precios que compensen la pérdida de poder adquisitivo esperada durante el aplazamiento, incluso cuando el periodo es corto, o

e) Los tipos de interés, salarios y precios se ligen a la evolución de un índice de precios.

1.2.2.2.- Partidas no monetarias valoradas a valor razonable.

Se valorarán aplicando el tipo de cambio de la fecha de determinación del valor razonable.

Cuando se reconozcan directamente en el patrimonio neto las pérdidas o ganancias derivadas de cambios en la valoración de una partida no monetaria, tal como las inversiones en instrumentos de patrimonio clasificados como activos financieros disponibles para la venta, cualquier diferencia de cambio, incluida en esas pérdidas o ganancias, también se reconocerá directamente en el patrimonio neto. Por el contrario, cuando las pérdidas o ganancias derivadas de cambios en la valoración de una partida no monetaria se reconozcan en la cuenta de pérdidas y ganancias del ejercicio, tal como las inversiones en instrumentos de patrimonio clasificados como activos financieros mantenidos para negociar o en otros activos financieros a valor razonable con cambios en la cuenta de pérdidas y ganancias, cualquier diferencia de cambio, incluida en esas pérdidas o ganancias, también se reconocerá en el resultado del ejercicio.

## 2) Conversión de las cuentas anuales a la moneda de presentación.

La moneda de presentación es la moneda en que se formulan las cuentas anuales, es decir, el euro.

Excepcionalmente, cuando la moneda o monedas funcionales de una entidad sean distintas del euro, la conversión de sus cuentas anuales a la moneda de presentación se realizará aplicando los criterios establecidos sobre «Conversión de estados financieros en moneda funcional distinta de la moneda de presentación» en las Normas para la Formulación de las Cuentas Anuales Consolidadas que desarrollan el Código de Comercio.

Las diferencias de conversión se registrarán directamente en el patrimonio neto.

Cuando una entidad sea partícipe en activos o explotaciones en el extranjero controlados conjuntamente según se definen en la norma relativa a negocios conjuntos y la moneda funcional de esos negocios no sea el euro, se seguirán los procedimientos de con-

ko prozedurak jarraituko dira aurkezpen-monetara bihurtzeko. Partaidearen urteko kontuetan txertatzen diren baterako negozioetan, negozio horiek atzerriko monetan egiten dituzten transakzioak moneta funtzionalera bihurtuko dira arau honetako lehenengo idatz-zatian azaltzen diren erregelak aplikatuz. Irizpide berak aplikatuko dira erakundeak atzerrian dituen sukurtsaletan.

11.– Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ), Kanarietako Zeharkako Zerga Orokorra (IGIC) eta bestelako Zeharkako zergak.

Jasandako BEZ ez-kengarria aktiboen eta zerbitzuen eskuratze-prezioan sartuko da, zerga horrek kargatutako eragiketak direnean. Barneko autokontsumoa denean, hau da, erakundeak bere ibilgeturako produktutakoa, aktiboen kostuari gehituko zaio BEZ ez-kengarria.

Hasierako balorazioak ez dira aldatuko, behin betiko hainbanaketaren ondorengo erregularizazioen (inbertsio-ondasunen erregularizazioa barne) ondorioz jasandako BEZ ez-kengarrian egindako zuzenketengatik.

Jasanarazitako BEZa ez da sartuko BEZak kargatutako eragiketen diru-sarreretan edo, aktiboko kontuei baja ematen zaienean, aktiboa besterentzean edo bestela xedatzean lortutako zenbateko garbian.

Jasandako BEZ ez-kengarriari buruzko arauak aplikatuko zaizkio, era berean, IGICi edo zeharkako bestelako edozein zergari, aktiboak edo zerbitzuak eskuratzean jasandakoa denean eta zuzenean berreskuratu ezin denean Ogasun Publikotik.

Jasanarazitako BEZari buruzko arauak aplikatuko zaizkio, halaber, IGICi edo zeharkako bestelako edozein zergari, erakundeak egindako eragiketak kargatzen ditueneari eta Ogasun Publikoaren kontura kobratzen denean. Hala ere, gastu moduan kontabilizatuko dira ordaindu beharreko kuota erabakitzekeo negozio-zifra (edo horrekin erlazionatutako kopururen bat) oinarri hartzen duten zergak, zerga horien zergapeko egitatea aktiboak transmititzeko edo zerbitzuak emateko eragiketa izan ez baldin bada.

12.– Mozkinen gaineko zergak.

Arau honetan bildutako mozkinaren gaineko zergak zuzeneko zergak dira, nazionalak zein atzerrikoak, aplikatzekoak diren zerga-arauei jarraiki kalkulaturako enpresa-emaitza batetik abiatuta likidatzen direnak. Hala badagokio, Erakunde Aseguratuaren Kontabilitate Planaren 12. araua aplikatuko da, osagarri gisa.

13.– Salmenten eta zerbitzu-emateen diru-sarrerak.

1) Alderdi komunak.

Ondasun-salmentatik edo zerbitzu-ematetik etortutako diru-sarrerak, hartutako edo hartu beharreko

versión a moneda de presentación indicados anteriormente. Para los negocios conjuntos que se integren en las cuentas anuales del partícipe, las transacciones en moneda extranjera realizadas por dichos negocios se convertirán a moneda funcional aplicando las reglas contenidas en el apartado primero de esta misma norma. Estos mismos criterios serán aplicables a las sucursales de la entidad en el extranjero.

11.– Impuesto sobre el Valor Añadido (IVA), Impuesto General Indirecto Canario (IGIC) y otros Impuestos indirectos.

El IVA soportado no deducible formará parte del precio de adquisición de los activos, así como de los servicios, que sean objeto de las operaciones gravadas por el impuesto. En el caso de autoconsumo interno, esto es, producción propia con destino al inmovilizado de la entidad, el IVA no deducible se adicionará al coste de los respectivos activos.

No alterarán las valoraciones iniciales las rectificaciones en el importe del IVA soportado no deducible, consecuencia de la regularización derivada de la prorrata definitiva, incluida la regularización por bienes de inversión.

El IVA repercutido no formará parte del ingreso derivado de las operaciones gravadas por dicho impuesto o del importe neto obtenido en la enajenación o disposición por otra vía en el caso de baja en cuentas de activos.

Las reglas sobre el IVA soportado no deducible serán aplicables, en su caso, al IGIC y a cualquier otro impuesto indirecto soportado en la adquisición de activos o servicios, que no sea recuperable directamente de la Hacienda Pública.

Las reglas sobre el IVA repercutido serán aplicables, en su caso, al IGIC y a cualquier otro impuesto indirecto que grave las operaciones realizadas por la entidad y que sea recibido por cuenta de la Hacienda Pública. Sin embargo, se contabilizarán como gastos, aquellos tributos que para determinar la cuota a ingresar tomen como referencia la cifra de negocios u otra magnitud relacionada, pero cuyo hecho imponible no sea la operación por la que se transmiten los activos o se prestan los servicios.

12.– Impuestos sobre beneficios.

Los impuestos sobre el beneficio a los que se refiere esta norma son aquellos impuestos directos, ya sean nacionales o extranjeros, que se liquidan a partir de un resultado empresarial calculado de acuerdo con las normas fiscales que sean de aplicación, y cuando proceda se aplicará, de manera supletoria, la Norma 12.<sup>a</sup> del Plan de Contabilidad de las Entidades Aseguradoras.

13.– Ingresos por ventas y prestación de servicios.

1) Aspectos comunes.

Los ingresos procedentes de la venta de bienes y de la prestación de servicios se valorarán por el valor

kontrapartidaren arrazoizko balioan baloratuko dira, eta balio hori izango da, kontrako ebidentziarik ezean, ondasun edo zerbitzu horientzat hitzartutako prezioa, prezio horri kenduta: erakundeak emandako deskontuak, prezio-beherapenak eta antzeko partidak, eta kredituen nominalari erantsitako interesak. Hala ere, kreditu komertzialei erantsitako interesak sartu ahal izango dira, epemuga urtebete edo gutxiagokoa denean eta kontratuzko interes-tasarik ez dutenean, diru-fluxuak ez eguneratzeak garrantzi handirik ez badu.

Diru-sarreretan ez dira sartuko, erakundeak hirugarrenei jasanarazten dizkien ondasun-salmenten eta zerbitzu-emateen gaineko zergak eta zuzenbide publikoko gainerako diru-sarrerak, hala nola balio erantsiaren gaineko zerga eta zerga bereziak, eta ezta hirugarrenen kontura hartutako kopuruak ere.

Eragiketa komertzialetako kredituak, tresna finantzarioei buruzko arauan xedatutakoaren arabera baloratuko dira.

Ez da diru-sarrerarik kontabilizatuko antzeko izaera eta balioko ondasunak edo zerbitzuak trukatzeko trafiko-eragiketak egiten direnean.

Diru-sarrerak eragiketaren funts ekonomikoaren arabera kontabilizatzeko xedeari jarraituz, gerta liteke transakzio baten osagai identifikagarriak irizpide desberdinen arabera kontabilizatu behar izatea, ondasun-salmenta bat eta erantsitako zerbitzuak bereiziz; aldearantz, transakzio bat baino gehiago izan arren, elkarrekin lotura badute, batera kontabiliza daitezke.

Salmenten edo zerbitzu-emateen diru-sarrera moduan kontabilizatuta dagoen zenbateko bat kobratuko ote den zalantzak daudenean, kobratzeko probabilitaterik ez duen zenbatekoa gastu moduan erregistratuko da, narriaduragatik egindako balio-zuzenketa gisa eta ez diru-sarreraren balio txikiago gisa.

## 2) Salmenten diru-sarrerak.

Segidan zehazten diren baldintza guztiak banan-banan betetzen direnean bakarrik kontabilizatuko dira ondasun-salmentatik etorritako diru-sarrerak:

a) Erakundeak erosleari transferitu dizkio ondasunen jabetzari dagozkion arrisku eta onura esanguratsuak, transmisio juridikoa edozein izanda ere. Transferentzia hori ez dela egin ulertuko da, erosleak erakundeari ondasunak atzera saltzeko eskubidea duenean eta erakundeak berrerosteko obligazioa duenean, hasierako salmenta-prezioari mailegu-emaile batek lortuko lukeen errentagarritasun normala gehituta ateratzen den prezioan.

b) Erakundeak ez du mantentzen saldutako ondasunen kudeaketa arrunta, ondasunen jabetzari normalean lotzen zaion neurrian, eta ez du ondasun horien kontrol efektiboa atxikitzen.

razonable de la contrapartida, recibida o por recibir, derivada de los mismos, que, salvo evidencia en contrario, será el precio acordado para dichos bienes o servicios, deducido: el importe de cualquier descuento, rebaja en el precio u otras partidas similares que la entidad pueda conceder, así como los intereses incorporados al nominal de los créditos. No obstante, podrán incluirse los intereses incorporados a los créditos comerciales con vencimiento no superior a un año que no tengan un tipo de interés contractual, cuando el efecto de no actualizar los flujos de efectivo no sea significativo.

Los impuestos y demás ingresos de derecho público que gravan las operaciones de venta de bienes y derechos y prestación de servicios que la entidad debe repercutir a terceros como el impuesto sobre el valor añadido, así como las cantidades recibidas por cuenta de terceros, no formarán parte de los ingresos.

Los créditos por operaciones comerciales se valorarán de acuerdo con lo dispuesto en la norma relativa a instrumentos financieros.

No se reconocerá ningún ingreso por la permuta de bienes o servicios, por operaciones de tráfico, de similar naturaleza y valor.

Con el fin de contabilizar los ingresos atendiendo al fondo económico de las operaciones, puede ocurrir que los componentes identificables de una misma transacción deban reconocerse aplicando criterios diversos, como una venta de bienes y los servicios anexos; a la inversa, transacciones diferentes pero ligadas entre sí se tratarán contablemente de forma conjunta.

Cuando existan dudas relativas al cobro de un importe previamente reconocido como ingresos por venta o prestación de servicios, la cantidad cuyo cobro se estime como improbable se registrará como un gasto por corrección de valor por deterioro y no como un menor ingreso.
